

Euskal Herriango ala Euskal Unibertsitatea

Deia, 1977-07-30.

Unibertsitate euskaldun bat nahi dugu Euzkadin.

Nahi dugu, behar dugulako. Eta ez bihar, *bihar* berandu baita. *Gaurko* nahi dugu, beraz, Euskal Unibertsitate bat.

Baina nahi dena ez da beti lortu ahal izaten, eta honelakoetan ahal denaren bila joatea ez da zentzugabekeria bat.

Ez beti, behintzat.

Azalduko dut arazo hau ahal dudan argien.

Gai honetaz arduratzen diren euskaldun batzuk *Euskal Unibertsitate* baten alde ari dira lanean; eta beste batzuk, *Euskal Herriango Unibertsitate* baten alde.

Carlos Santamaría eta Koldo Mitxelena ondo argitu duten bezala, hizkuntza arazo bat dute tarteko: Euskal Unibertsitatea euskera hutsean izango litzatekeena da, eta bestea, berriz, gure herriaren zerbitzuan eta euskerak irakaskuntza eta ikaskuntzan toki erosoan izango bada ere, lehenengotik euskera hutsean izango ez litzatekeena.

Baina, zergatik ez biak?

Euskaltzale denek nahi dugu Euskal Unibertsitate bat. Ikastolatik hasi eta gorantz egiten abiatu den bidea Unibertsitateraino iritsi araztea da gure herriaren ametsa. Eta ametsa, mamituko da. Baina honetara iritsi arte gauza asko behar ditugu bideko: diruz egitekoak direnez gainera, irakasleak, testuak eta euskera hutsean klaseak jarraitzeko gai diren ikasleak. Hau etorriko da; baina, eta etorriko bada, derrigorrezkoa da honetarako lanean gaur bertan hastea.

Honetan, pozgarria da orain lanean den UZEI (Unibertsitate Zerbitzurako Euskal Ikastetxea) asmo honen lehen pausoak ematen ikustea.

Baina orain ereiten hasi diren hazi honek hartuko du erner eta hazkunderako behar duen denbora. Bitarte honetan, ezin ditugu Unibertsitateak gure herrian gaur planteatzen dituen arazoak aztertuta utzi.

Bitartean, Euskal Unibertsitatea sortze-lan honetan ari den bitartean, zerbait egin genezake Euskal Herriko Unibertsitate baten alde.

Ematen du, gainera, honetarako momenturik egokienean gaudela.

Joan den egunean ari ginen hemen, sail hontan. Euzkadiren lurralde mugak sortzen dituen arazoez hizketan. Apalki aitortu behar dugu, gure herriaren berjabetzarako lehen pauso batzuk besterik ez gairela ematen ari. Gero, Estatutoa norainokoa izango dugun, zenbaterainoko nagusitza lortuko dugun, zein fakultate herriratuko ditugun, hau dena bidean dugu oraindik. Eta hemen eta orain gure herriko azpiegiturak eratzeko lanetan hasten ari garen honetan, behar genituzke Euskal Unibertsitatearenak jarri.

Aukerabide honen alde dago, beste batzuekin batera, Koldo Mitxelena.

Azaltzen duen arrazoibidea argi dago.

Eskubide osoz esijitzen dugu Unibertsitate ofiziala Euskal Herrian. Eta ez Bilboko bezala, herrena, Fakultate guziak dituen osoa baizik. Honetarako, Euskal Herriak behar du, eta berehala, osorik hartuko duen Distrito Unibertsitario bat; Hego-Euzkadiz ari gara noski.

Bada garaia, lehenengo ikas-mailatik hasi eta Unibertsitateraino gure herria, gure diruak hartzen dituen Estatuko lege-barruan eta gure eskuetan hartzeko. Unibertsitate honetan, gure herriak planteatuta dauzkan hainbat arazori erantzuna eman behar zaio. Euskera ez da azkenekoa, noski. Baina Euskal Unibertsitate bat osorik eraikitzeko gai izango garen arte, hau izango litzateke gure irakasleak hezitzeko behar duguna; hemen emango lirateke euskeraz emateko gauza garen gai guziak, eta euskera bera ikasle mailan erakusteko bide eroso ere izango litzateke.

Euzkadiko herriari zerbitzeko biderik egoki eta azkarrena izango litzateke hau.

Mitxelenak ondo dioenez, euskaldunoi ez zaigu Estatuagandik datorrena ezer gustatzen. Baina behar ditugu aukerako ditugun ibil-bideak hartu, gureganatu, eta geurok ibiltzen hasi.

Batez ere, Euzkadiren azpiegiturak osatzeko bide badira.